

Iratzar

---

# MUNDUARI SO



---

Covid-19 izurriteak mundua astindu du eta bizitzaren atal guzietan eragina izan eta izango du. Ondorengo lerroetan munduari begiratuko diogu. Lehen atalean, izurriteak agerian utzi dituen tendentzi geopolitikoari buruzko irakurketa proposatuko dizuegu. Bigarren atalean ordea, joera hauek gure Herrian eta gure lan politikoan izan ditzaketen lau ondorio marrazteari ekinen diogu. Hona hemen beraz, irakurketa hau egiteko jarraituko dugun bidea.

0.Sarrera

1.Tendentzi geopolitikoak

1.1Hainbat Zertzelada ekonomiko

1.2 Mundu “ordena” batetik mundu “kaos” batera?

1.3 Estatuaren azkartzea

2.Ondorioak

2.1 Azken ondorioak

---

## 0. Sarrera

Azken hamarkadetan maiz esan eta entzun ohi dugu aldaketa garaiak bizi ditugula. Gaur ordea, organismo txiki batek esaldi horren edukia ikusgarri bilakatu du. Birusa izurrite moduan hedatu denez mundu zabalean eragina izan du, agintari politiko eta instituzioen aurreikuspena eta prebentzio gabezia azalaraziz, segurtasuna birdefinitzen eta mundu ordenan aldaketak sortuz. Mundua ez da berdina izango eta pandemiaren kudeaketak jadanik herrialdeen arteko disparekotasunak nabarmentzearekin batera, gaurko nazioarteko sistemaren ahuleziak, merkatuei buruzko mitoak eta gaizki deituriko gobernantza globalaren porrota agerian utzi ditu. Covid 19ak gaurdaino izan dugun ekoizteko, kontsumitzeko eta gure artean erlazionatzeko ereduak murrizteaz harago, aldatzera ere behartu gaitu .

Era berean, birusaren existentziak berak, merkataritzako ekoizpenaren arrazionaltasunaren baitan natura gainbalio bihurtzeak eritasun globalerako bidea zabaltzea dela agertu du, besteak beste, espezien arteko eritasunen transmisioak arautzen dituzten prozesuak hausten dituelako. Ekonomia eta ekologiaren arteko kontziliazioaren beharra azkartu du Covid 19ak.

Birus hau ez da dimentsio globala izan duen izurrite bakarra, baina esan dezakegu honek egungo kapitalismo basatia biluztu duela eta agerian utzi duela munduko jendarteak jasaten dituen mehatxurik arriskutsuenak, militarrek baino sozialak eta ekologikoak direla. Garcia Linerak ederki borobiltzen du ideia hau, larrialdi klimatikoaren, krisi bio-sozialaren eta krisi ekonomikoaren arteko akoplamentuaz hitz egiten duenean. Covid garai honetan, hiru krisi horien arteko akoplamentuak ezagutu ditugun hainbat fenomenoren azelerazioa, anbibalentzia, eraldaketaren mugak eta aukerak azalarazi ditu. Hala nola, gaurko merkatua eta

ezagutzen dugun globalizazioa eta bere instituzioen porrota, zein estatuaren azkartzea.

Ziurgabetasunez beteriko garai hauetan, zaila da esatea fenomeno hauen norabidea zein izango den, dakigun bakarra ordea zera da; nazioarteko agertokian botereen oreka berrantolatzen ari dela eta mugimendu horiek, XVI mendetik munduan eragina izan duen Mendebaldeko paradigma kapitalistan erraiak pitzatzen ari direla.

# 1. Tendentzi geopolitikoak

Iturria: NDF. 2020ko ekaina

## 1.1 Hainbat zertzelada ekonomiko

Covid-19-k areagotu egin du azken urteetan ematen ari zen larrialdi ekonomikoa. (Nazioarteko Diru Funtsa) NDF-k egindako azken prospektibaren arabera, Depresio Handia eman zenetik, ezagutu den hondamen ekonomikorik latzena izan daiteke krisi ekonomiko berria. Baina orduko krisia edo eta 2008koa ez bezala, oraingoa ez da inflazioa zuzentzeko edota finantza sektorearen hipertrofiarengatik gertatu, baizik eta ekonomia errearen eskaintza eta eskariaren arteko haustura bortitzaren ondorioz. Osasun krisiari aurre egiteko hartutako konfinamendu neurriek hondamen ekonomikoa eragin dute. Baina kuriozosa dirudien arren, izurrite globala izan bada ere, erantzuna ez da bizitza globala antolatzeko sorturiko arkitektura global horren eskutik etorri. Globalizazio mota honek ez du funtzionatu; herrien arteko koordinazioa gauzatzeko zenbat zailtasun eta oztopo dauden nabarmen geratu da, batez ere bizitzaren ordean finantza interesak lehenesten direnean. Galdera da; nork ordainduko du krisi sanitario eta sozio-ekonomiko hau?

Ekonomi Jarduerako sektore gehienek geldialdiak krisi azkarra inplikatu du, BPGren jaitsiera eta langabezia areagotuz. Munduari begirada azkar bat emanaz, eta nahiz eta ziurgabetasuna nagusia den Covid-en berragertze berri bat eman daitekeelako, NDF-k ematen dituen datuei jarraituz, 2020rako munduko BPG %-4,9 <sup>1</sup> izango da. Herrialde guztiek, Txinak salbu ( BPG %1 bada ere, bost puntu inguru uzkuritu da bere ekonomia eta apirilean %6ko langabeziara iritsi zen ) 2020ko bigarren hiruhilekoan BPG negatiboa izan dute eta langabeziaren areagotze inportante bat pairatu dute: AEBn adibidez ekonomia 9.7puntu jaitsi da eta langabezia % 14raino igo daiteke nahiz eta Trumpen gobernuak 2,3 trilioi dolar laguntza sartu dion. Era berean, Euroguneko ekonomia 10.3 puntu uzkuritu bada jaitsiera % 10ra hel daiteke, langabezi tasa %7.8 ingurukoa duelarik (herrialdeen arteko diferentziak oso handiak diren arren:Espainol estatuan %12,8 Alemanian %10. adibidez).



Azken ildo honi segituz, Nazioarteko Lan Erakunde, NLE-aren arabera, Covid-19ak eragindako konfinamendu neurriek munduko 2,7 mila miloi langilerengan eragina izan dute <sup>2</sup>. Honek esan nahi du, ekoizpen eta zerbitzuen kostuen galera ekiditeko munduko langileriak eta klase subalternoek ondorio sozial eta ekonomiko oso gorriak biziko dituztela. Bide batez, garrantzitsua da aipatzea, ekonomia kapitalistaren sustengua den zaintza lan doako eta prekarioak krisiari aurre egiteko neurrietan hartu duen garrantzia, ikusgarri utziz aditu feministek aspaldi esaten zutena, ekonomia emakumeen lanaldi bikoitz edo hirukoitzen gain sustengatzen dela. Familietan edo prekarizatutako adinekoen egoitzetan egon da jendartea sostengatzeko ardura eta dirudienez, kalitatezko zerbitzu publikoengatik apustua egin baino, esternalizazio eta pribatizazioarekin jarraituko da, baita familien (emakumeen) gain ardura osoa uzten.

Izurriteak, jadanik ematen ari ziren hiru joera geoeconomiko – globalizazioaren intentsitatea jaitea edo desglobalizazioa, produkzioaren birlokalizazioa eta jarrera protekzionistak eta Txinarekiko desakoplamendua - larriagotu ditu <sup>3</sup>. Baina pentsa daitekeenaren kontra, joera hauek ez digute ondorio geopolitiko sakontasuna erakutsi bai ordea jarraian ikusiko ditugun zantzuak azalarazi dizkigute.

<sup>1</sup>: Ematen ditugun datu oro 2020 ekainean NDF-k emaniko datuak dira. Zehetasun gehiagorako ikus: <https://www.imf.org/es/Publications/WEO/Issues/2020/06/24/WEOUpdateJune2020>

<sup>2</sup>: Gazte eta emakumeengan berezik eraginez.

<sup>3</sup>: HEISBOURG F:“ le virus et la géopolitique. Fondation pour la Recherche Stratégique .2020

## 1.2 Mundu “ordena” batetik mundu

Izurriteak botereen arteko oreka globalaren aldaketa azkartu du, gehien bat Txina eta AEBen arteko interesen sinbiosiaren hausturaren ondotik <sup>4</sup>, munduko lidergoaren aldeko lehia areagotu duelako, nahiz eta biek eta diferentziak diferentzia merkatu ekonomi kapitalistaren paradigma berarekin jokatzen duten.

Covid 19k ordena globalaren osotasuna ez badu aldatu ere, gertatzen ari den aldaketaren zantzu nabarmenak aurreratu ditu. Hiru aipatuko ditugu: Arreta gutxi edo albiste ez ziren hainbat prozesu azaldu ditu, adibidez; Txinaren hedapenaren nolakotasuna Afrikako eskualde batzuetan. Ezagunak ziren tendentzi geopolitikoak areagotuko ditu- AEB eta Txinaren arteko lehia eta Mendebaldetik ekialderako boterearen oreka ekonomikoaren aldaketa. Eta segur aski oraindik ezagutzen ez ditugun beste batzuk mahaigaineratu ditu: Errusiaren papera eta EBren etorkizuna.

IA-k egindako Global Trends 2030 txostenean argi dio 2030erako Txina izango dela munduko lehen ekonomia, eta AEBk horretarako prestatu beharko dela. Momentuz, Asiako herrialde hau munduan kokatzen ari da, izurriteari aurre egin dio, eta hasierako egoera ilunaren eta populazioaren kontrol bortitzaren ondorioz, izurritearen kudeaketa positiboa egin du. Bere “Know how” zientifiko eta sanitarioa partekatu ditu, pertsonal sanitario eta ekipamenduak beste herrialdetara igorri, eta AEBk erakutsitako unilateralismoaren aurrean estatuen arteko lankidetzarako irizpideak praktikara eramanez.

Ebidentzia guztien arabera, izurriteak Txinaren papera indartuko du, nahiz eta bere ekonomiaren erreperazioa ez den erreza gertatuko, besteak beste esportazioekiko izan duen menpekotasuna oraindik ere handia delako. Pandemia gertatu arte, herrialdeak esportazioekiko izan duen lotura oso nabarmena izan da, bere BPGko %21koa hain zuzen ere. Txinaren beste ahulgune bat balore kateekiko dependentzia da eta horregatik, “Made in China 2025” plangintza abiatu du. Gainera izurriteak demanda globalaren ahulezia agertu badu, Txinako

errepublikaren barne demanda ez da espero zen bezala garatu eta ondorioz, zorra gainditzeko zailtasunak izan ditzake. Halere X. Jinping- en gobernu bultzatzen ari den estimulu fiskala eta hainbat ataletan, hala nola telefono mugikorren fabrikazioan, bostgarren belaunaldiko telekomunikazioetan (adimen artifiziala), auto elektriko eta energia berriztagarrietan inbertsio produktiboagoek bidera dezakete ekonomiaren erreperazioa. Zer nahi gisaz, gaur gaurkoz, inor gutxi kuestionatzen du botere ekonomikoaren oreka globalaren aldaketa Mendebaldetik Ekialdera desplazatzen ari dela, behinik behin produkzioa zein teknologia berrien guneak Pazifikon koka daitezkeelako. Honek Europan eta AEBko ekonomiaren zenbait ataletan eragin negatiboa izan lezake.

Bestela datozen hilabeteetan Txinako diplomaziaren aktibismo indartsua espero daiteke <sup>5</sup>. Asiako potentzia honek nazioarteko erakundeetan partaidetza eta finantza-ekarpena sendotu nahi izango du, batez ere NBEaren sistemaren barruan. Era berean BRICS-n, Shanghaiko Lankidetzaren Erakundearen (OCS), G20n bere eragiletza areagotu dezake. Zetaren korridore berria etengabe sustatuko du. Edo krisiari lotutako sektoreetan (osasuna, logistika, merkataritza elektronikoa, teknologiak, etab.) lankidetzan oinarritzen diren irizpide berriak garatzeko asmoa erakutsi du, herrialde bazkide kaltetuenentzako bisita ofizialak burutuz edo eskualdeko eta gaikako foroak landuz. Badirudi, Txinak krisi globalaren kudeaketa gidatzen duen herrialdea izan nahi duela eta horretarako epe motz eta ertainera duen kartarik eraginkorra kontrapartidarik gabeko lankidetzaren zabala burutzea dela. Xede horri jarraikiz, ez du egitura finko bat proposatzen, akordio eta aliantzen lanketa asimetrikoak baizik.

Xi Jinpinggek deitu duen “Txinatar nazioaren emantzipazio” plana abian da. Eta badirudi partida jokatze baldintzak lortu dituela.

<sup>4</sup>: Fedor Lukyanovek kazetari errusiarrak 2007an ekonomialari batzuk erabilitako “Chimerica”, Txina eta “Amerika”ren arteko sinbiosi ekonomikoa adierazteko neologismoaren berri ematen du. Errusiarrak dio geroxeago, Henry Kissingerrek eta Zbigniew Brzezinskik proposatu zuten bi potentzia hauen arteko sinbiosi politikoa izendatzeko “Bi Handiak” formulara pasatu zela. 2010tik aurrera ordea, jadanik Obamaren eskutik Txinarekiko desakoplamendua ematen hasi zen eta joera hau Trump-ek sakondu du, gaur egun Txina eta AEBen arteko gerla hotza berria horren ondorio bat izanik.

<sup>5</sup>: Txinak Mundu mailako sare diplomatiko ahalmentsuena du AEB, Britainia Handiak, edo Frantziaren gainetik.

EBen hegemonia arriskuan ote dago? Esan liteke Donald Trump-en "America first" politikaren ondorioz, nazioarte mailan AEBen boterea gutxitu egin dela. Herrialde askok gero eta maizago sentitu dute AEB ez dela bazkide fidagarria eta multilateralitatearen aldeko apustua egin dute. Dena den ez gaituzen okertu, AEB indar hegemoniko globala da; ekonomiko, kultural eta militarri. "soft eta hard power" maisuki erabiltzen duen munduko potentzia da. Aitzitik, Covid 19k AEB mundu mailako agertokira begira baino, barrura begira jarri ditu. Potentzia amerikarrak ez du oraingoan beste krisi ekonomikoetan izan duen lidergorik, eta uler daitekeenez, Txinak lehiakide amerikarrak utzitako espazioa okupatzen asmatu du.

Izurritearen iraupenak, AEBen pisua eta geopolitikan duen kokapena definituko ditu. Trumpen gobernuaren indargunea zera da; amerikar ekonomi honek ondasun eta zerbitzuen merkataritzarekiko munduko batezbestekoak baino mendekotasun txikiagoa duela: Munduko Funtsaren arabera, 2017an jarduera ekonomiko honi dagokionez AEBko BPGren %12koa zen bitartean, munduko batezbestekoa edo media %28koa zen, eta arestian genioen bezala Txinako BPG %21koa da. Pentsa daiteke AEBk krisi ekonomiko eta sozial honi baldintza ekonomiko egokiekin aurre egingo diotela, baina pentsa daitekeenaren kontra gaur gaurkoz lehen ekonomiak ere sufrituko du, Covid-ek AEBko "partenaire" komertzial guztien ekonomietan eragina izango duelako.

Bestela, barne agertokiari begiratzea interesgarria izan daiteke, izurritearen iraupenak AEBko jendartean dagoen polarizazio politiko, soziala eta kulturala areagotu dezakeelako. Polarizazio hau ezagutzen ez zen mailakoa izaten ari da, eta Covid-ak eraso egin baino lehen, diru-sarreraren, aberastasunaren, hezkuntzaren eta arreta jasotzeko aukerari dagokienez zatitu zuen jada herrialdea. Ezberdintasunak oso handiak dira AEBko jendartearen baitan. Minneapolisko irudiek erakutsi diguten bezala Covid-ak klase eta arraza haustura larrietan eragin eta sakondu du.

Ikusten ari garen bezala, azaroan AEBen ospatuko diren hauteskundeek Trumpen jarrera baldintzatuko dute. Presidente amerikarrak izurriteari buruz

egin duen kudeaketa txarra ezkututzen saiatuko da, koronabirusaren errua Txinari leporatuz edo geopolitikako beste espazioetan suak piztuz. Beraz Txina eta AEBen arteko gerla hotza hasi besterik ez da egin eta ordukoa ez bezala, gaurko mundua are egitura gabekoa eta kaotikoagoa da, besteak beste, munduko ordena egituratzen zuten orduko esfera ideologikoak desagertu egin direlako eta gaur egun egiturak baino, interesek definitzen dituztelako harremanak eta aliantzak. Mundua ulertzeko eta kokatzeko manera aldatu da eta deitu den gobernantza global honetako instituzioek ez dute jada erantzunik ematen. Gainera ziurgabetasunak eta bi potentzien arteko lehia honek AEBko defentsa sektoreari protagonismo handiagoa eman diezaiolke [6](#) are gehiago defentsa industriak pairatu ditzakeen ondorioak direla medio eta industri mota horiek Txinako hornikuntza kateen dependentzia duelako.

Europak berandu eta zalantzati erantzun dio osasun eta ekonomi krisiari eta bere estatukideen joera endogamikoak are gehiago ahuldu du aspaldi noraezean dagoen ekonomia integrazio egitura hau.

Krisi honen irteera, babes soziala blindatuzetik soilik etor zitekeen [7](#). Eta horretarako neurri zehatzak hartu behar ziren. Ildo honetan, zorraren mutualizazioa- zorraren mutualizazioa ez da baztertu, hain zuzen ere lehen aldiz zor komuna sortzeko proposatu du Batzordeak, afera da horren inguruko ziurtasunik ez dagoela- baldintzapen makroekonomikoak eta paradigma ekonomiko berri baterako alternatibak alboratuz, EBko Batzordeko burua den Von der Leyen presidenteak izurritearen ondorioei aurre egiteko 750 [8](#) bilioi euroko funts bat proposatu du. Eta proposamena interesgarria bada ere, oraindik proposamena besterik ez da, Europako Kontseiluak bere iritzia eman beharko duelako. Funtsa inportantea izanik, baditu alde beltz batzuk; Europako Legebiltzarrak proposaturiko 2 bilioi euroko diru laguntzaren azpian geratzen delako. Gainera proposamenak ez du baldintzapen makroekonomikorik deuseztatu. Eta honek estatuen zorra bizkortu dezake, funtsaren parte bat itzultzeko konpromisoa inplikatzen duelako eta inplizituki Koronabirusaren ondorengo garaian zorra arazo gakoia izatea bilaka dezakeelako.

[6](#): The Heritage Foundation.

[7](#): EHBilduk Europar jada proposatu zuen Europa mailako gutxieneko errenta ezartzearena, horrek EHri bederen, Europako iparraldeko irizpidetara gerturatzeko bide emango lioke.

[8](#): Hemen zifra dantza dago, Von der Leyen plana berez, 1,850 Bilioi euro dira. Baina, larrialdi pakete horretatik, EBko Hurrengo Belaunaldia izeneko diru kopurua: 750 bilioi euro dira. Hauetatik estatuek 500 bilioi euro zuzeneko transferentzia eta diru-laguntzen bidez jasoko dituzte eta beste 250.000 bilioi euro maileguren bidez jasoko dituzte, beraz azken kopuru hau Europako itunaren baldintzapen irizpideen arabera, egingo da. Zorraren fantasma astinduz.

Gainerako 1,100 bilioi euro finantza marko plurianualari dagokiona da edo EBko 2017-21ko presupuestoari dagokion jarduera da. Beraz ohiko aurrekontua

Europar integrazioak ekonomiaren hazkundera du helburu eta horrela izanik, estatu kapitalisten integrazioa merkatuaren bidez egiten da, hori da bere lehentasuna eta horretarako pribatizazio politikak eta legeak bideratu ditu eta ez du bere jendartea babestu. Agian ez luke harritu behar esaten dugunak, Covid 19-k eragindako krisiak EBren integrazioaren baliogabetasuna soilik azpimarratu du. Bruselan konturatu dira EBren amaiera izango dela test honetatik ez badira ondo ateratzen. Italiak BPGren %165eko zorra izango du; Nola ordaindu zor hori? Zertan geratu da bere burujabetza, ez baditu baliabide materialik bere hondamenetik ateratzeko?.

Datorren asteetan ikusiko dugu EB bizirik aterako den. Larritasunaren adibide gisa aipatu dezakegu besteetan ez bezala, estatukide aberatsenak- “frugal four”<sup>9</sup> batzordearen kontra agertu diren arren, Alemaniak eurogunea sustatu eta sostengatzeko hartu duen erabakia . Gauzak horrela, une aproposa izan daiteke eredu neoliberal horren aurrean alternatiba bat osatzeko. Momentuz ezkerren abaniko zabalak ez du proposamen sinesgarri bat mahaigaineratu eta gabezia hori bete ezean, langileek eta herri klaseek erantzunak bilatuko dituztenean, ultraeskuinerantz begiratu dezakete eta bertan arrapostu horiek mozorro sozialaz jantzita aurkitu. Ultraeskuinak baduelako alternatiba bat, erabat arbuigarria dena, baina bere lekua egiten joan dena azken urte hauetan 2008ko krisiaren egoneza herritarraren magalean.

Azken bi gogoeta atal hau bukatzeko: irakurketa honetan Txinan, AEB eta Europar Batasunean bereziki zentratu bagara ere, azken urteotan, eskualdeko potentziak diren, Errusia, Turkia, Iran eta orain India ere, ordena globalaren fragmentazioaz jabeturik, haien eskualdeetan lidergoa finkatzeari ekin diote. Herrialde hauentzako, epidemia euren eskualdetan eta munduan duten presentzia indartzeko aukera izan da. Errusiak laguntza militarra eta medikoa bidali du Italiara eta Estatu Batuetara. Era berean, baliteke herrialde horietako batzuetan koronabirusaren krisia areagotzea, eta horrek mugatu egin dezake epe laburrean kanpora zabaltzeko ahalmena. Hala ere, pandemiak munduko ordena globalaren zatiketa eta berrosaketa azkartu egingo du eta jokaleku horretan bere tokia egin ahal izango dute.

Bereziki kezagarria izan daiteke, Covid 19-ak gatazka politiko militarra duten eskualdeetan utz ditzakeen giza ondorioak eta krisi berriak . Izurriteak neurri murriztaile sanitarioengatik eskualde hauetan parte hartzen duten nazioarteko instituzioak zein eragile politiko, sozial eta humanitarioen edo komunikabideen lana mugatu dezakete . Baina era berean bi jarrera antagonikoak eman daitezke: batetik, gobernu autoritario batzuk nazioarteko instituzioen ahuleziak profitatu dezakete, arrazoi sanitarioen aitzakian, bitartekarien laguntza alboratu dezakete, gatazkari buruzko informazioa uka dezakete edo bertako populazioa babesik gabe utzi dezakete. Laburki esanda gobernu hauek Covidek eragindako egoera hau baliatu dezakete gatazken soluziobiderako ateak itxi edo oztopatzeko . Bestalde eta M.Keating-ek dioen bezala pandemia aukera bat izan daiteke Nazio Batuetako idazkari orokorra den Antonio Guterresen proposaturiko bidea aintzat hartzeko eta gatazka eta gerla egoeran dauden aktoreek su etena eman dezaten eta bake eta irtenbide duinen aldeko bideak bilatzeko. Kontua da horretarako borondate politikoa eta irudimena behar dela, agian une honek horretarako aukera eman dezake.

<sup>9</sup>: “Frugal Four edo lau Gartzuak”izenarekin Austria,Danimarka,Herbehereak eta Suediako estatuak osatzen duten taldeari

---

## 1.3. Estatuaren azkartzea

Garcia Linerak dio larrialdi klimatikoaren, izurritearen eta krisi ekonomikoaren aurrean instituzionalitate globalaren nolabaiteko porrota agerian geratu dela eta erantzunak bilatzen ari den instituzio bakarra Estatu dela. Ez da globalizazioa zalantzan jartzen, bai ordea neoliberalismoak bultzaturiko globalizazio mota hau. Egoera honetan, estatua nukleo bateratzaile gisa agertzen da; erabakiak hartzen, mugak ixten, isolamendu neurriak aplikatuz edota politika publikoak ahalbideratuz. Sistema publikoaren beharra izurrite honen ikasgaia izan dela esan daiteke. Ikusteko dago ordea ze estatu forma gailentzen den; dagoen estatu neoliberal, nabardura sozialak eskuratuko dituen edota gaurdaino ezagutu ez dugun estatu eraldatzailea. Batzuk estatu perbertituei buruz hitz egiten dute, beste batzuk estatu keynesianoaren itzuliaz eta beste batzuk, Boaventura de Sousa Santosek bezala, instituzionalizazio berriaz hitz egiten dte: Prozesu politiko konstituziogile bat behar delako, ordezkaritza bidezko demokraziaren formak eta demokrazia parte hartzaile erabakitzailearenak artikulatuko dituen. Herritarrek parte hartu beharko lukete horretan, erabaki politikoetan eragiteko, horiek hartzen laguntzeko, kontrolatzeko; Subiranotasunaren hiru organoak, exekutiboa, legegilea eta judiziala ez dira nahikoak, eta gutxienez laugarrena behar dugu estatuaren politikekiko kontrol demokratiko bat bermatu ahal izateko. Azken agertoki horrek garapen eredia aldatzea eskatzen duelarik.

Izurriteak erakutsi digu estatu egiturarik gabe ezin dugula erabakirik hartu eta zentroaren menpe geratzen garela: Madrilgo birzentralizazio jarrerak, gure herrien arteko mugen ezarpenak edota autonomiaren ahulezia eta zentroarekiko menpekotasuna horren adibidea dira. Horregatik, Gaitasun politikoa (burujabetza materiala) erabakimen gune bat eta eskumen ziur eta erabatekoak (instituzioak) behar ditugu gure jendartearen Ongi izate sozial eta politikoa bermatzeko, eta munduan toki bat izateko.